

Año IV. urtea

136 - 2023

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES

LINGVÆ

VASCONVM

STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**Kultura zinematografiko
bat sortzeko bide luzea:
XX. mendeko euskal
idazleak zinemaren
aitzinean (1910-1980)**

Josu Martinez Martinez

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LV. urtea - N.º 136. zk. - 2023

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Egileen eta arazleen sintaxia jite adjektiboen argitan Ane Berro Urrizelki, Leire Sánchez-Dorronsoro	287
Hizkuntzekiko Irakaskuntza Sentsiblearen gaineko usteak: EAEko LHko irakaslegaien iritziak aztergai Artzai Gaspar, Oihane Galdos, Eider Saragueta, Karin van der Worp, Leire Ituiño-Aguirre	321
William Wordsworth's <i>Sonnets Dedicated to Liberty</i>: the poems about Basque mountaineers Haritz Monreal Zarraonandia	347
Gatazka armatua eta genero gatazka bidegurutzean. Jokin Muñozen narratiba begirada feminista batetik Amaia Serrano Mariezkurrena	371
La notación de onomástica no latina en la documentación legerense: aspectos sociolingüísticos Guadalupe Lopetegui Semperena	397
Euskal komiki-liburuak. Goranzko joera baten azterketa Naroa Zubillaga Gomez	421
Kultura zinematografiko bat sortzeko bide luzea: XX. mendeko euskal idazleak zinemaren aitzinean (1910-1980) Josu Martinez Martinez	437
Hizkuntza-ideologiak. Euskararen biziberritzean eragiteko analisi-tresna Miren Artetxe Sarasola	457

Sumario / Aurkibidea

VARIA

La mano de Irulegi: reflexiones desde la paleohispanística y la vascoología [Dosier] Joaquín Gorrochategui, Ekaitz Santazilia (eds.)	485
La mano de Irulegi: edición y comentarios epigráficos y lingüísticos Joaquín Gorrochategui, Javier Velaza	491
Una mano cortada Francisco Beltrán Lloris	503
La inscripción vascónica de la mano de Irulegi desde la perspectiva ibérica Joan Ferrer i Jané	515
Observaciones sobre la inscripción de la mano de bronce de Irulegi Eduardo Orduña Aznar	539
Un enigma envuelto en un misterio: la interpretación lingüística de la mano de Irulegi Iván Igartua	551
Sobre la lengua de la mano de Irulegi: apuntes y conjeturas Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño	565
An assessment of the Basque Interpretation Hypothesis on the inscription contained in the hand of Irulegi Julen Manterola, Céline Mounole	583
<i>Zorioneko</i> y <i>zorion</i>: lo que nos dice de ellos la historia de la lengua vasca Joseba A. Lakarra	597
¿Es la lengua de la mano de Irulegi la antecesora <i>directa</i> del euskera histórico? Mikel Martínez-Areta	617
Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	639

Kultura zinematografiko bat sortzeko bide luzea: XX. mendeko euskal idazleak zinemaren aitzinean (1910-1980)

El largo camino hacia una cultura cinematográfica: los escritores euskaldunes ante el cine (1910-1980)

The long road towards a cinematographic culture: Basque writers and cinema (1910-1980)

Josu Martinez Martinez
NOR Ikerketa Taldea, UPV/EHU
josu.martinez@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0001-5167-8485>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv136.7>

Lan honek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntza jaso du (IT-1438-22).

Jasotze data: 2023/06/02. Behin-behineko onartze data: 2023/07/20. Behin betiko onartze data: 2023/11/09.

LABURPENA

Artikulu honek, ikuspuntu historiko batetik, XX. mende hastapenetik 1980 arte euskal idazleek zinemari buruz idatzitako testuak aztertzen ditu deskriptiboki, euskaraz publikatutako liburu eta agerkarien azterketa xehea eginda. Lau arotan banatuta, beste askoren artean, «Kirikiño», «Batxi», Jean Etxepare, Larzabal, «Zerbitzari», «Luzear», «Aitzol», Mitxelena, Ibinagabeitia, Lete, Azurmendi, «Txillardegi», Izagirre edo Sarrionandiak zinemari buruz idatzi testuak hartu dira aintzat. Hala, kartografia zabala osatu da, bilakaera erakutsiz, mende hastapeneko gaitzespenetik 1970eko hamarkadan kultura zinematografiko baten sorrerarako oinarrietaraino.

Gako hitzak: zinema; euskal literatura.

RESUMEN

Este artículo analiza de forma descriptiva, desde un enfoque histórico, los textos sobre cine escritos por escritores euskaldunes desde principios del siglo XX hasta 1980, a partir de una revisión bibliográfica pormenorizada. Divididos en cuatro etapas diferentes, se han considerado, entre otros muchos, textos escritos por «Kirikiño», Jean Etxepare, «Aitzol», Mitxelena, Ibinagabeitia, Lete, «Txillardegi», Izagirre o Sarrionandia en torno al cine. Así, se ha elaborado una amplia cartografía, mostrando una clara evolución de la literatura sobre cine escrita en euskera, desde el rechazo de principios de siglo, hasta las bases para la creación de una cultura cinematográfica en los años 1970.

Palabras clave: cine; literatura vasca.

ABSTRACT

This article analyzes in a descriptive way, from a historical perspective, the texts on cinema written by Basque writers from the beginning of the 20th century until 1980, based on a detailed bibliographical review. Divided into four different stages, they have been considered texts written by «Kirikiño», Jean Etxepare, «Aitzol», Mitxelena, Ibinagabeitia, Lete, «Txillardegi», Izagirre or Sarrionandia about cinema. Thus, an extensive cartography has been prepared, showing a clear evolution of the literature on cinema written in Basque, from the rejection of the beginning of the century, to the bases for the creation of a cinematographic culture in the 1970s.

Keywords: cinema; Basque literature.

1. SARRERA. 2. ZINEMA MUTUAREN GARAIA (1910-1930). 3. ZINEMA SOI-
NUNUNAREN HASMENTAK (1930-1937). 4. GERRAONDOKO URTEAK (1940-
1956). 5. MODERNITATERANTZ (1956-1980). 6. ONDORIOAK. 7. ERREFEREN-
TZIAK.

1. SARRERA

1980ko hamarkadatik gaur egun arte Euskal Herrian egindako zinemari buruz argitaratu diren lanetan, oro har, euskararen eta zinemaren arteko harremana saiheska aztertu izan da (de Pablo, 2012; Fernandez, 2015; Roldan Larreta, 1999; Stone & Rodriguez, 2015; Unsain, 1985; Zunzunegui, 1985). Alta, euskarazko produkzioak gora egin duen hein berean, euskarazko zinema bera ere gero eta gehiago ari da bihurtzen ikerketa-objektu, eta hainbat ikuspuntutatik egindako lanak agertu dira azken urteotan. Hala, esaterako, Barambonesek (2011) eta Manterolak (2019) hizkuntzaren ikuspegitik landu dute gaia. Azpillagak (2004) eta Manias-Muñozek (2015), ekonomiatik. Doxandabaratzek errepresentazio filmikoa aztertu du bere doktore-tesian (2020), eta Sojo Gilek (2019) eta Martinezek (2022) ikuspegi historikotik erreparatu diote. Haatik, lan horietako gehienek filmak hartu dituzte aztergai nagusi. Artikulu honetan, aldiz, euskararen eta zinemaren arteko beste esparru batean finkatu nahi da fokua: euskaraz zinemari buruz eraikitako diskurtsoetan.

XX. mendeko lehen urteetako feria jolasaren izaera gaindituta, 1920ko hamarkadatik aitzina, zinemagintza arreta intelektuala lortzen hasi zen mundu osoan. Hizkuntza askotan ugaritu ziren zinema estetikoki, moralki zein politikoki aztertzen zuten diskurtsoak, eta Christian Metzék «zinemaren hirugarren makina» deitzen duena sortu zen horrela: kritikek, kronikek edo/eta teoriak osatutako idazketa zinematografikoa (Metz, 2001, 25. or.). Zinemari buruzko diskurtso horiek «kultura zinematografiko» bat sortu zuten hainbat herrialdetan (García Carrión, 2013, 13. or.): zinemaren gaineko idazki, eztabaida eta jarduerak barnebiltzen zituen kultura zinematografikoa,

zinekluben sortzetik hasi eta zineman espezializatutako aldizkarietaraino. Euskal Herrian, mende hondarrera arte bederen, hein horretako kultura zinematografikorik ez zen finkatu, naski (euskarazko zinemarik sortu ez zen bezala). Alta, mende osoan zehar, euskal idazleek uste baino gehiagotan hartu zuten zinema aipagai beren lanetan. Artikulu honetan diskurtso horiek biltzen entseatuko gara, helburu kartografikoz.

Ikuspuntu historikotik, hamarkadaz hamarkada euskal idazleek¹ zinemarekin erlazionatuta idatzitako testuak aztertuko ditu gure ikerketak, deskriptiboki. Horretarako, lehen mailako iturri dokumentalen azterketa xehea izanen da metodologia nagusia; hots, errebisio bibliografiko eta hemerografiko sakona. Bide horretan, alde batetik, hainbat idazleren lan publikatuak aztertu dira (memoria-lanak, kronikak, *Auspoa* sailleko liburuak); eta, bestalde, XX. mendeko euskal prentsako agerkari nagusietan eta euskarazko atalak zituzten beste zenbaitzuetan ustiaketa sistematikoa egin da, zinemaren gaineko artikulua bilatuz. Honako agerkari hauek aztertu dira: *Euzkadi*, *Aberri*, *Gure Herria*, *El Pueblo Vasco*, *El día*, *Euzko Gogo*, *Egan*, *Herria*, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna*.

Espazio arrazoiengatik, 1910eko hamarkadatik 1980ra mugatuko dugu gure ikerleroa. Alegia, zinemari buruzko lehen aipamenetatik hasi eta Hego Euskal Herrian erregimen autonomikoa finkatu arte. 1980tik goiti, bai komunikabide berrien agerrera (egunero euskarari leku egiten zioten egunkariak, ETB...), bai euskal zinemaren beraren garapenak beste etapa batean sartu zuten balizko euskal kultura zinematografikoa, eta ikerketa autonomia merezi luke horren azterketak.

Ikerlana lau ataletan banatu dugu, aldi historikoak bereiziz. Lehen zatian, zinema mutua zeneko garaian erreparatuko diogu, hots, 1910-1930eko hamarkadei. Sasoi hartakoak dira zinemari buruzko lehen aipamenak, eta fenomeno berriak gizartean eragin zuen iraultzaren lekuko, euskal idazleen artean ere debateak sortu zirela ikusiko dugu. Bigarren atalean, 1930eko hamarkadako gerrara arteko urteak hartuko ditugu aintzat. Sasoi hartan, euskal kulturak bizi izan zuen loraldiaren eta zinema soinuaren agerpenaren kari, euskal *intelligentsiaren* izen nabarmenek ere zinemari buruzko gogoetak plazaratu zituzten. Hirugarren atalak 1940ko eta 1950eko hamarkadetan agertutako lanak aztertuko ditu, *1956ko belaunaldi* deitu dena agertu artekoak. Azkenik, laugarren atalean, 1960ko hamarkadatik aurrerako berpizkundean zentratuko gara, euskal zinema bat eraikitzeko lehen ahaleginekin batera, kultura zinematografikoaren lehen urratsak ere ematen hasi zirela erakutsi nahian. Hondarrean, zenbait ondorio ateratzen entseatuko gara.

1 *Euskal idazleak* esaten dugunean, euskaraz idatzi ohi zuten idazleak hartuko ditugu aintzat. Hala, gehien-gehienetan, euskarazko testuak aztertuko ditugu. Haatik, euskarazko idazle izateagatik ezagun diren zenbait idazlek zinemari buruz erdaraz idatzi zituzten testu gutxi batzuk ere kontuan hartuko ditugu.

2. ZINEMA MUTUAREN GARAIA (1910-1930)

Zinematografoa Euskal Herrian fite hedatu bazen ere, 1910eko hamarkadara arte apenas aurki daiteke fenomeno berriari buruzko aipamenik euskal idazleen testuetan. 1910eko hamarkadatik aitzina, ordea, euskal idazle gehienek zinemaren zabalpen azkarraren aurrean izan zuten lehen erreakzioa nolabaiteko inertzia anti-modernistaren eta axolagabekeriaren artean kokatu zen; ferriako dibertsio kontsideratu zuten edo ezikusiarrena egin zioten, baina zinema gizartean gero eta presentago bilakatzen zen heinean, hizkuntza propioa sorturik eta aisialdiko industria nagusietako bat bihurturik, euskal prentsan zinemari buruzko testuak ugaritzen hasi ziren, gehienetan gaitzespen kutsuarekin. Euskal kultura, neurri handi batean, apaizen eskuetan baitzen, euskal idazleen zinemarekiko joera orokorrean pisu handia izan zuen Elizaren doktrinak, 1910eko hamarkadaren hasieratik zinema-aretoen aurka gerra betean zegoenak. Hala, pulpituetatik botatako sermoiez gain, zinemaren kontrako lekukotza idatzi ugari iritsi zaizkigu, elizgizonen prentsan sinatuak. «Odieta» adibidez, kexu zen *Argian*, zinemak euskaldunen artean zuen arrakasta zela eta:

Piloka ta piloka an daramazki, mezarara baño alde zurrerago, umetxoak eta gazteak eta zarrak, langileak eta aberatsak, emakumeak eta gizakumeak. Ilunpean edo ia ilunpean, neskatzak eta mutilak naztean, begiyetako niniak beren lekutik irten bearrean, kiriyoak atezo atezo, adimenak griña loikorenak, beraldukorenak, eder zora-garriztat ikusten dituelaz, eta biyotzak griña oyen su kixkalkoraz gar gar (Odieta, 1927, l. or.).

Odieta testutik ondoriozta daiteke zinemak herritar euskaldunen artean arrakasta gaitza zuela, baina elizgizonen diskurtsoaren eraginez, euskal prentsan politikoki zuzen bihurtu zen zinemaren aurka egitea. Bertsolariak ere bertso jarri eta berrietan trena edo telefonoa bezalako aurrerapen teknologikoak laudatu arren, zinema «Luziferren instrumentutzat» jo zuten. *Zaldubirena* da zinemari buruz iritsi zaigun lehen bertsoa, 1924koa: «Eta haan enkargatu 'itu neska ta mutik gaztiak/askok egiten duten txit ibillera tristiak; nola teatro, igual zine, gan Dantza nastiak/oiek dirade Luzifergana juateko albistiak» (Gesalaga, 1967, 40. or.). Ondoko urteetan ere, gisa bereko bertso gehiago aurki daitezke berripaperetan.

Abertzaleentzat, zinema ez zen soilik moralarentzat kaltegarri. Euskal kausarentzat ere hala zen. 1923an, *Aberrri* egunkariak bere editorialaren zati bat zinemari eskaini zion, euskal paisaiaren edertasuna zinematografoak zekarren «inbasioarekin» kontrajarriz:

En medio del baserri, entre maizales, haciendo su antiestética figura un contraste odioso con los caseríos cercanos, he visto que se alzaba descaradamente un «Ideal-Cinema». Su aparición repentina, cuando me iba recreando en la visión deliciosa del más puro paisaje vasco, me ha producido un fuerte sentimiento de rabia mezclada con pesimista amargor. ¿No será un imposible vencer en la lucha contra esta invasión asoladora? El ambiente nos asfixia y, ¿qué hacemos para transformar el ambiente? El exotismo tiene todo a su favor, desde la fuerza de la ley impuesta hasta la codicia del

vasco y la irreflexión de los patriotas. El «Ideal-Cinema» irrumpe en el baserri con toda su secuela de erderismo, mal menor que ha de producir («Exotismo y esperanzas de liberación», 1923, l. or.).

Erderismoa ekarriko zuela zinemak, *Aberriren* kezka. Euskararen baztertzeo tresna izanen zela, alegia. Artean zinema mutua zen arren (nola erdaldundu jendea tresna mutu batek?), uste hau asko zabaldu zen. Hala, Jean Etxepare Aldudeko medikuaren lumatik ere irakur dezakegu zinemaren eraginarekiko mesfidantza:

Beha nola doan jende xehia trumilka hirirat, teatre arrotzetarat; beha nola gure herrietan gaindi dabilzan komediant, teatre, zinema, zonbat holako jostagailu, zorigaitzez ez batere guri eman direnak, zorigaitzez oro frantses edo espáñolezkoak, zorigaitzez oro gure sosaren norapait eremaliak (Etxepare, 1984, 80. or.).

Hirietatik at, zinema herri tipiataraino ere sartzen hasi zen laster. Ipar Euskal Herriko herri askotan, garai hartan eraiki ziren lehen antzokiak. Zentzu horretan, zinemara joanez herria erdalduntzen zela uste zabaldua zen arren, aldi berean, Piarres Larzabalek dioenez, areto haiei esker hasi ziren herri askotan euskarazko antzerki lanak egiten:

Ordu artio ez ginuen antzokirik, salbu Baionan... Orduan altxatu baitziren lehen zinema-lekuak, zinemarekin sartu zen jendetan, ikusgarrietarat joateko gogoa eta plazerra. Senperen, 1921ean, Barbier erretor eskualtzaleak moldaturik, emana izan da, eskualde huntan, lehen eskuarazko antzerkia (Larzabal, 1996, 53. or.).

Hegoaldean ere, hogeiko hamarkada osoan zehar, zinemaren zabalkundea orokorra izan zen. Jose Maria Etxaburu «Kamiñazpi» idazlearen idatzietatik 1922an Ondarroako lehen zinema nola ireki zen jakin dezakegu:

Zinea ipiñi baiño len, ez dakit urte baten ala geiagoan, antxoba gatzitua edo salazoa egiten eban Bitor Zelaia'ren ama Gregori'k, gero bere semeak 1922'garren urtean Cine Celaya zabaldu eban tokian. Zinea edo bere tokia beia zan bakarrik. Aurreko aldean, erdi ingum arte, bizkarrik bagako aulkiak ipiñi zituen, bakoitzean sei lagun inguru sartzen ziranak; eta atze aldean, euskera txarrean esanda, sillak. Zinea asi ta bi edo iru urtera, sua izan zan makiñan, eta zalaparta andia izan zan, bertan egozaten artean, danak arin-arinda kanpora urten naian. Ez zan eriotzarik izan; baiña asko miña artutakoak. Zine ixilla edo mutua izan zan denporan, orkesta bat egoten zan. Doiñu gozoak jote zituen eta jendea pozik egoten zan (Etxaburu, 1995, 52. or.).

Andoni Basterretxearen bertso bat ere iritsi zaigu Ondarroako lehen zinema hartaz, eta Odietak zioena berretsiz, euskaldunak filmak ikustera trumilka zihoazela salatzen digu: «Milla bederatzireun ta ogeitalauera / Así giñan lenengoz joaten zinera: / Bost txotxiki domekan, iru eguenera. / Ala ta be-ezin lortu askotan sarrera» (Basterretxea, 2000, 143. or.).

Nolanahi ere, garai hartako idatzi guztiak ez ziren kronikak izan, ez eta gaitzespen manifestuak ere. Hegoaldean, euskal idazle abertzaleen kezka nagusia beste bat zen.

Garbizaletasunaren joera puri-purian, 1914ko apirilean, Evaristo Bustinza «Kirikiño» *Euzkadi* egunkariko euskal sailaren arduradunak zinemari euskal izen bat asmatzeko lehiaketa proposatu zien irakurleei: «Euzkerea euzkotar gustijok erabilli al ixateko, biar-biarra yaku, ba, gauza barrijetarako itz barriak sortutia. Ori egin ezik, Euzkerea nai ta nai ez ilgo da» (Kirikiño, 1914, 1. or.). Hainbat proposamen iritsi zitzaizkion: «Zinemintza», «igidazkin», «idazpil», «igeleskin», «irudibilmintza». Horietako batzuk era guztietako argitalpenetan erabiltzen hasi ziren (Martinez, 2022, 25.-28. or.).

Manuel Arriandaga «Mibisus» elantxobearrak zioen berak «igidazkin» erabiltzen zuela, baina «idazpil» egokiagoa zatekeela: «Cinematografo ixan lei idazpil: idatzi bil (ibili): dabillan idazkija: bil: redondo; bel: redondo, propenso, andante, movido. Película cinematográfica, idazpil-ingi. Proyección, irudin: Irudi (imagen)» (1914, 1. or.). Logika berdinari segituz, «Orizti» kritikariak zera uste zuen: «Gurdibil auto onen ikurtzeko ongi ba'dago, ongi dagoke ere irudibil cinematografo onen ikurtzeko» (1914, 1. or.). Amantzi Uriolabeitiak (1914, 1. or.), «Igeles» sustraitik abiatuta, «igeleskin», «igeles-mintz» eta «igelesti» erabiltzea proposatu zuen. «Oilangorri» idazleak, aldiz: «kinematographo billazkin edo belazkin (ibilli-atz-kin) izan liteke euzkeraz: baita ere, kinematografo, elerik geyenek artu baitute itz au berentzat, eztakit zergatik euzkerak ezin artu dezakeen» (1914, 3. or.).

Ondoko urteetan «idazpil» nagusitu zen euskal prentsa abertzalean. Juan Bautista Bilbao Elgezabal «Batxi» itsas kronista ezagunak, adibidez, horixe baliatu zuen. 1915eko udan, portuz portu ibilki, itsasotik lehorrerutzen zen leku bakoitzaren kronika igortzen zuen *Euzkadira*, eta horietan usu agertuko ziren zinemari (edo idazpilari) lotutako kontuak.

Salbuespenekoak ere badira Batxiren testuak, garaiko idazle gehienen lanetan ez bezala, zinemari buruz ez baitute agertzen inolako gaitzespen zantzurik. Kontrara, bere herrikide gehienen gisan, zinemarekin gozatu egiten zuela ageri da, argiki:

Gaur egon naiz zinematografo batean, eta izen horixe dauen pelikula bat ikusi dot, eta azaldutera natortzue, hemengo jolasgaien barri izan daizuen. Urteten da lehengo Kaiserra, eta beste bide batetik datorchio Infernuko Satana, hiru horzdun sarda eta guzti, eta itsasoa erakutsirik, eta bertan ontzi bat, dinotso: «Adiskidea, han be emakumeak eta umeak baegozak. Hilko joaguzak?». Eta baietz erantzunik, han doaz morroi biok ontziari bultza egin eta hondoratzen. [...] Infernura heldu denean ikusi bazenduez Kaiserraren bizarrak, hamaikatxu barre eginen zenduen! (Bilbao, 1997, 224. or.).

3. ZINEMA SOINUDUNAREN HASMENTAK (1930-1937)

1930eko hamarkadaren hasmentan, zinema soinuduna hedatzen hasi zenean, aldeketa sozial eta politikoa handiak ari ziren gertatzen Espainian. II. Errepublikak, kultura kontsumoa eta aisi industria bultzatu zituen askatasun giroa ekarri zuen. Hala ere, Espainiako industria zinematografikoari kosta egin zitzaion egoera berrira egokitzea.

Lehen urteetan, AEBetako eta Alemaniako zinemaren hedapen hegemonikoak ekoizpen espainiarraren paralisia eragin zuen. Zinema-aretoak beste hizkuntza batean hitz egindako filmez bete ziren, edo Estatu Batuetan edo Joinvilleko estudio frantsesetan ekoiztutako espainolezko filmez (Gubern, 1977, 10.-11. or.).

Testuinguru hartan, zinema iparramerikarraren kontrako kritika giroa zabaldu zen. Intelektual askok ingelesez mintzatzen ziren film haien zabalpen masiboa estrategia inperialista baten parte gisa ikusi zuten, eta gainerako herrialdeak beren nortasun nazionala, kulturala eta linguistikoa babesteko premia defendatzen hasi ziren. Kezka horrek tribuna eta iritzi artikulak bete zituen, bai prentsa zinematografikoan, bai prentsa orokorrean.

1931ko urrian, Bartzelonan antolatutako Hispanoamerikako Zinematografia Kongresu entzutetsuan, hizkuntza izan zen hitzaldi eta eztabaida askoren gai nagusi, eta inperialismo linguistikoaren salaketa azpimarratu zen. Haatik, eleaniztasunaren defentsa hori ez zen ele guziendako bali. Espainola ingelesa baino gutxiago ez zela defendatzen bazen ere, hizkuntza horretako zinema errebindikatzeko, herrialdeetako hizkuntza barietateak hierarkizatzen ziren. Hala, filmetan azentu latinoamerikarrak hango pertsonaien ahotan baino ez ziren erabili behar, espainol neutroa eta, beraz, Latinoamerikako pantaila guztietarako egokia, iberiar penintsulakoa baitzen (García Carrión, 2013, 280. or.). Espainiako hizkuntza guztiek ere ez zuten begirune bera merezi. Espainola ingelesaren aitzinean defendatzen zen ber, beste hizkuntzak gutxiesten ziren. Katalanez, euskaraz, galegoz edo errepublika hispanoamerikar bakoitzaren hizkeretan filmatzea, Angel Antemek bere ponentzian adierazi zuenez, Babelera atzera egitea zatekeen (ZZ. AA., 1932, 151. or.).

Euskal Herrian ere, zinema soinudunak hizkuntzaren gain izanen zuen eragina kezka iturri izan zen. Euskal idazle askorentzat arazoa espainolezko zinemak euskara are gehiago baztertzeari zen. Bernardo Garro «Otxolua» idazlearentzat, argiki, euskararen etsai zen zinema: «Zine eletaria edo parlantea Bizkai'ko uri azitxoetan erderearen zabalzale andienetarikoa da» (Garro apud Izagirre, 1996, 31. or.).

Alta, lehen aldiz, zinema soinuduna euskararentzat aukera gisa ikusi zuenik ere izan zen. Ez da ahantzi behar *Euzko Pizkundea* deitu zitzaion mugimendua ernetzen ari zela Hego Euskal Herrian idazle gazteen eskutik, eta bertsolaritza, literatura modernoa, eta are egunkari bat ere euskaraz egiteko proiektuak eskutik eskura zerabiltzala «Lizardi», «Lauaxeta» eta «Aitzol» buru zituen belaunaldi berriak. Giro hartan, euskarazko lehen irratsaioen sustatzaile eta Ander Arzelus «Luzear» *Argia* aldizkariko zuzendariak, 1931n bertan, zera aldarrikatu zuen, Joseba Zubimendiri idatzitako gutun publiko batean:

Atzo, zinean izana nauk. Gabero, radio entzun oi diat. Eta antzoki, zine ta radio nastu dituk cocktailik biurrienean; burua zoratu zidatek. Eta irudipenik zalapartarienak irten nai bizian zebizkiat. Irudipen zoro oiek, Euzko Gaztediari eskeñi nai zizkioat. ¿Zoro batek, eun zintzo zoratu oi dituala etziotek ba? Ia ba zorakeri abek, norbaitek egi biurtzen ote dizkiken (Luzear, 1931, 6. or.).

Luzearrek buruan zituen «irudipen zoro» haiek, naski, euskarazko zinema eta irratia ziren. Hala esplikatu zuen: «Antzokia! (Teatroa). Irudi-biltegia!! (Zinea). Irratizkiña!!! (Radioa). A zer iru lagun, gure zabalkunderako! Ta irurok, gure deiaren zai-zai bezela dauzkagunak» (1931, 6. or.).

Luzearren ideiek ez zuten arrakastarik izan. Aurrerago ikusiko dugun bezala, euskal nazionalismoa zinemaren potentzialaz ohartu bazen ere, bere proiektuetan ez zion euskarari rol nagusirik aitortu. Baina, *Argiako* zuzendariak ez zuen amore eman. Oraino 1935ean, «Zinea lagun» izeneko artikulu batean, zinema euskararen aliatua izan zitekeela aldarrikatzen segitzen zuen eta apustu sendoa egiteko une historikoa zela zioen:

Iñoiz euskal zinerik egin al izatekotan oraintxe egin diteke ba. Ingeles eta aleman or-txe entzuten ditugu egunero, ta gaztelar izkiarekin azaltze utsa asko degu mintz edo pelikulak atsegin biziz ikusteko. Konplikazio aundirik gabekoak dira nagusitxo bezela azaltzen zaizkigunak: eresi, abesti ta maitasun gaiekikoak. Ereslari ta abeslariak ez ditugu palta. Zine antzezleri bezela jarriko lirake gureak ere noski. Ta Schubert'en «Ene abestiak egaz» bezin gauza politik ez ote genuke ba asmatuko? Orrelako bat naikoa berriz ludiko bideak irikitzeke. Ta euskera, irudi bilmintzetan (zine pelikulan) «etxekoandre». Alemana baño goxoagoa litzake behintzat, gaztelar belarrirentzako izan ezik. Ametsetan ari al naizen? Zer eginen zaio ba? Ezpaitu gizonak bizitzeko ogia bakarrik asko. Amets goi oietatik jexita ere zerbait egin diteke ordea, orra. Badakit nik etxetako zinemintz saltzalle bat, Paris'ko olarekin tratuan ibillia dala. Illean onenbesteko bat saltzea eskatu diote: ortan ezin gindezke saiatu? Lenengo oinkada auxe izan diteke, «zinea» gure lagun egiteko. Ta zinea lagun izanik... (Luzear apud Izagirre, 1996, 51. or.).

Luzear ez zen bakarra izan. Euskararen atzerakadari buruz urte haietan argitaratu zen libururik famatuenetakoan, «Aitzol»-en ideien gerizpean osatutako *Genio y lengua* delakoan ere komunikabideak eta zinema euskaldundu beharraz hitz egiten zuen Justo Mokoroa «Ibar» idazleak: «Es de todo punto necesario poner al servicio de la civilización vasca este resorte formidable de nuestros días, si no queremos que, monopolizado por el exotismo invasor junto con los demás adelantos modernos, acabar de deformar y destruir el espíritu de nuestra cultura» (1936, 260. or.).

Nolanahi ere, elite abertzaleek ez zuten euskararen alde egin, urte haietan egin zuten proiektu zinematografiko handi bakarrean. 1933an, Pizkundeko figura garrantzitsua eta euskaltzale nabarmena zen Teodoro Hernandorenak *Euzkadi* dokumental luzea estreinatu zuen: «Un documento vivo, valioso, moderno, de un pueblo en pie», *El día* egunkariaren iragarpenen arabera (Iragarkia, 1933). Alta, prentsa abertzalearen eredu linguistikoari segituz, filma nagusiki erdaraz egin zen. Hernandorena euskararen aldeko ekintzaile izan eta kamerek Bizkaiko eszenetan Lauaxeta bera gidari izan bazuten ere, eta proiektuaren giblean Aitzolen influentzia bazen ere. Preseski, Joxe Ariztimuño «Aitzol» ekintzaile ezagunak artikulu mamitsu bat publikatu zuen, erdaraz, filmaren estreinaldiaren ondotik. Leni Riefensthal-en dokumentalen eskutik bogan zegoen zinema alemaniarra eredu hartuz, filmagintza «aberriaren berpizkunderako tresna» aldarrikatzen zuen, hizkuntzari erreferentziarik egin gabe:

Quien ha descollado como un coloso en el arte de la propaganda popular, utilizándola como un vehículo del noble ideal y haciéndola correr por las arterias con celeridad pasmosa hasta llegar al último individuo distanciado de los círculos nerviosos de la emoción patriótica, ha sido el hitlerismo. [...] Hitler, celoso de la fuerza subyugadora del cine, crea la sociedad «Svastika Tonfilm» para infiltrar en el pueblo alemán el espíritu de la patria que resurge. [...] Como prólogo a lo que puede ser el cine como medio de propaganda patriótica –propaganda de ideas y conocimientos raciales– entre nosotros y los vascos esparcidos por el mundo, es la película «Euzkadi» («Aitzol», 1933, 1. or.).

Deigarria da euskararen berpizkundearen abangoardia osatzen zuten jende horiek hizkuntzaren gaia arrunt ahanzi izana film bat egin zutenean. Areago, kontuan hartuta hamarkada batzuk geroago Hernandorenak berak publikoki defendatzen zuela euskarak zineman lekua behar zuela (Lahina, 1956, 247.-252. or.).

Mugaren bestaldean, aspalditik zetorren fenomeno bat indartu zuen zinema soinudunak: Ipar Euskal Herria Frantziako produkzioendako leku erakargarri bilakatua zen mende hastapenetik, eta lurraldearen eta euskal kulturaren exotismoak erakarritu, hainbat film egin ziren bertan, erromantizismoak eta Pierre Loti bezalako idazleek euskalduntasunaz eraikitako iruditeria zientifiko, literario eta plastikoan oinarrituta. *Noce au Pays Basque* (1913), *Un drame au Pays Basque* (1913), *Gachoucha, fille basque* (1921) edo *Le Chemin d'Ernoa* (1921) lanek euskaldunen irudi klise estereotipatua zabaltzen zuten, tradizioari lotutako salbaia onarena, *Ramuntchoren* imajinarioaren bidetik. Pierre Lotiren eleberria bera ere hirutan eraman zen pantailara. Halako lanen aitzinean, kritikoa agertu ziren zenbaitetan euskal idazleak, erakusten zen Euskal Herria errealitatetik urrun ikusten zutelako. Piarres Larzabalek, adibidez, hala idatzi zuen: «Ez dute batere den bezala agertzen eskualdun neskatxa... Ez dira gure neskatxak panpin edo zantzail errex batzu, filma horietan agertuak diren bezala. Lotiren Ramuntxo beharbada zineman agertu dute, baina ez oraino Eskualdun litaken Ramuntxo» (Larzabal, 1960, 225.-241. or.).

Estilo honetan ekoitzi zen lanik nabarmenetakoa *Au Pays des Basques* dokumentala izan zen, Gaumont etxeak 1930ean estreinatutako dokumental luzea, Frantzian estudiantetik kanpora filmatzen zen lehen film soinuduna ere bazena. Euskal Herri osoari buruzko dokumental aberatsa zen, Gaetan Bernovilleren *Le Pays Basque* liburuan oinarritua. Euskarazko esaldi batzuk ere entzun zitezkeen pantailan, lehen aldiz. Alta, Iparraldeko Jean Elizalde «Zerbitzari» idazle ezagunak 1930eko abenduan Bilboko *Euzkadi* egunkarira bidalitako kronikan mesfidantza zuen egileen asmoez:

Baionan eta Miarritzen ez dire gehiago mintzo Gaétan Bernoville Donibandarrak egin liburutik atheratu duten zinema eder batez baizik. Au pays Basques du izena. Horren ikusten bizpairuetan ibili den euskotar baten arabera, ez omen ditake asma eta ikus deus ederragorik! Txistulari, pilotari, arraintzale, artzain, eskual-dantzari, oro agertzen omen dire lerro-lerro... eta oro mintzo dire, Matxin senpertzar pertsulari aipatua barne. Bertzeak bertzalde. Horiek hola, nahuzue zerbeit beharri chilorat erran dezazuegun? Eskual-Herriaren eta Eskualdunen gorestekoa egina bada zinema hori eta Eskual-Herriaren egon behar badu bakarrik, ederki zaukula. Baina

belarrimotzen gutarterat ekharazteko balinbada, ifernuko deabru beltzenak deramala lehenbailehen berekin (Haur prodigioa, 1930, 5. or.).

Ez zebilen oker «Zerbitzari». Izan ere, ez zen euskaldunendako film bat, baizik eta publiko frantsesari pentsatuz egindako lana. Pariseko prentsak, hala iragarri zuen: «Grand film de propagande touristique» (Zerbitzari apud Martinez, 2022, 86. or.).

4. GERRAONDOKO URTEAK (1940-1956)

1936ko eta 1939-1945eko gerren ondotik garai zailak etorri ziren euskal kulturarentzat. Euskararen negu min hark mundu osoan gertatu filmen kontsumoaren hazkundearekin bat egin zuen. Espainolez eta frantsesez dialogatutako filmek euskararen zokoratzea eta bizimodu tradizionalaren akitzea azkartuko zutela arrangura argia zen hainbatentzat. Hala ageri da garai hartako «Xalbador» bertsolariaren bertso batean: «Bainan debaldetan da gure entsegua / gazteak bertz'alderat hartu du plegua: zinemetan ta dantzan uda ta negua / iduri sekulako duela galdua / gure aintzinekoen kantuko gustua (Aire, 1969, 21. or.). *Euzko Gogo*a aldizkarian, Andima Ibinagabeitiak antzeko kezka agertu zuen: «Erria ez da geienetan irakur-zale, entzun-zale amorratu baizik. Antzerki bat iragartzea aski zen lehenago teatroak gunburutzeko. Egun kinemak, teatrurik asko mututu ditu, eta antxinako yokera kine-bidetatik dabilkigu» (1952, 21. or.). Bide beretik, urte haietan izan zen debate bat euskal idazleen artean, teatroa (euskaraz egin zitekeena) eta zinema aurrez aurre jartzen zituena. Aldizkari berean, sinatu gabeko artikulu batean esplizituki aipatzen zen ideia hori: «Zinema gareztiegi da gure moltsentzat: bederen euskerazko antzerti edo teatroa akula dezagun, bi ondar urte hauetan artu duen oldar ederra ez dadin neholaz geldi, bainan izaitekotz aundi!» («Eusko Ikaskuntzaren deia», 1954, 98. or.). Piarres Larzabal izan liteke egilea, gure ustez, antzeko kezka lehenago ere plazaratu baitzituen, eta ordurako, bere antzezlanak ospetsu bilakatuak baitziren Ipar Euskal Herrian.

Halako aipamenetatik haratago, *Euzko Gogo*an, sasoi hartan publikatu ziren euskarazko lehen zinema kritikak. Frantzisko Etxeberria Tolosa, «P. Abalegi»² izenez sinatzen zuen gerraurreko pizkundeko idazleak, Canneseko festibalean ikusitako filmen berri eman zuen 1956an. Di Sica, Fellini edo Kurosawaren filmez mintzatzeko, euskarazko hitz berriak asmatu zituen, garai bateko neologismoen joerari eutsiz. Hala, zinemari deitzeko, «Itzalberria» hitza sortu zuen. Koloretako filmei «Margoz egindakoa» deitu zien, zuri eta beltzez egindakoei «Beltzez egindakoa». Bestelakoan, Abalegiren kritiketan, autore zinemarekiko gustua ageri da: «Tamalez, itzalberria ikustera doazen asko, buruauste bitxi ugarikoak izan oi dituzu. Eta, edertiari yaramon aundirik ez diote egiten. Burrukalariak eta ohoinak eta antzekoak besterik ikusi nai ez dunari, zoaz itzalberri baten ederkeraz zer derizkion galdetzera. Birigarroari goizabarren edertasunaz galde egitea añaxe zenduke» (Abalegi, 1956, 94.-101. or.).

2 *Argia* aldizkariko zuzendari izana zen Abalegi eta Virgilioren *Eneida* euskaratu zuen 1928an. Misiolari jesuita, gerra ondotik, Txinan eta Erroman ibili zen, besteak beste.

Abalegiren *Euzko Gogoako* kritiken sasoi beretsuan, Koldo Mitxelena ere zinema kritikak publikatzen hasi zen Hego Euskal Herrian, *Egan* aldizkarian. 1954an idatzi zituen lehenak, eta berak erabilitako hiztegia gelditu da, zinemaz mintzatzeko eredu gisa, ororen buru, «zinema» hitza bera ere, hark finkatua izanki (Perez Gaztelu & Telletxea, 1994). Baina, hizkuntzalaritzatik haratago, Mitxelenaren zinema paperek eduki aldetik ere ikuspegi berri bat ekarri zuten zinemari buruzko euskal lanetara. Ez baitezpada bere jakitate zinematografikoarengatik, baizik eta gogo irekiko ikusle baten gogoetak zirelako. Chaplin eta Fellini laudatuz, Hitchcock-en teknika aitortuz, Bergman-ek heriotzaz eta jainkoaz pausatu galderen gainean gogoetatuz... filmak literatura unibertsaleko lanekin (Shakespeare, Gorki, Joyce) erlazionatu zituen usu, eta, tarteka, euskal idazleen lanen erreferentziak ere sartu zituen («Xenpelar», «Orixe», «Lizardi»...).

Nolanahi ere, Espainia frankistan publikatutako kritikak ziren Mitxelenarenak, ikusi zitekeenaren eta esan zezakeenaren mugen barnekoak. Hala, adibidez, deigarria da, garai hartan estreinatu zirelarik euskaraz osoki egindako lehen filmak (André Madré-ren *Gure Sor Lekua* 1956an, eta Gotzon Elortzaren lan laburrak, 1959tik goiti) Mitxelenak iruzkin txikienik ere ez egitea haiei buruz. Seguru aski, haien berririk ere izan ez zuelako.

5. MODERNITATERANTZ (1956-1980)

Hirurogeiko hamarkada berpizkunde sasoi izan zen euskal kulturarentzat, hainbat arlotan, euskarari modernitatearen ateak zabaldu zizkionez gero. Garai hartan, mundu osoan zine-klubak ugaritzen ari ziren, eta euskara hutsezko lehen zine foruma sortu zuen gazte talde batek Zestoan. Esperientzia hartatik abiatuta, handik urte gutxira Xabier Unanue zinemari buruzko artikulu didaktikoak idazten hasi zen *Zeruko Argian*. Hizkera sinplean erredaktatuak, bi urtean 30 testu baino gehiago plazaratu zituen, zinemaren izaeraz, generoez, autore batzuen ibilbideaz... Lehendabizikoan, argi utzi zuen zein zen bere helburua:

Zineari, gure hizkuntzak oso gutxi landua duen sail honi eltzera noa. Zineari ere euskal argia isuri genezaiokeela-ta, euskaraz iritzi batzuk emanaz, dakidan eta aal dudan neurrian ate bat irekitzea da nere elburua. [...] Zineak kondairan zear gizonengan izan duen eragina aztertzeke, erdal lanetaz baliatu bearrean gara. Erdal aldizkari berezietatik atera bearko ditugu zenbait iritzi eta gertakizunen mamia. Euskaraz ez bait dugu oraindik arlo au goldatu. Zoritxarrez bear bada, baina arazoa or dugu eta aurre eman dezaiozun. Lan andia eta gaitza izanen da zalantzarik gabe. Alaz ere, uretan sartu gabe ez dagoela igeritan jakiterik eta... busti gaitezen leenbaileen. [...] Zine gaia ezaguna da gure errietan, baina erdal kulturaren zati bezala beti. Eta horixe da guk nai ez duguna: euskal kulturaren barruan artzea baizik (Unanue, 1972, 7. or.).

Euskal literaturan ere zinema urte haientantxe hasi zen naturaltasunez integratzen, kontakizunetan zein pertsonaien ohituretan. «Txillardegia» idazlearen *Leturiaren*

egunkari ezkutua eleberriko protagonista, adibidez, normaltasunez joaten zen filmak ikustera (1957). Juan Mari Lekuonak (1973, 56. or.) 1962an hildako Marilyn Monroeri eskaini zion «Meretriz hila» poema:

Ille oriko eme oparo:
gure gurariz illikan ago.
Illotza:
ostu diñagu biotza!

Ikusi aunagu billuts-billutsean.
larru lotsean,
eme giroko bipil utsean.
Gaur gorputz dalzan,
milla begien izormen latzean,
nai iastakorrak duan baratzan...

Hiritartasunari eta modernitateari lotuta, euskaldun izateko modu berri bat ari zen sortzen gizartean. Hala, zinemak gero eta leku handiagoa zuen urte haietan asko hazi ziren *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan. *Anaitasunan*, Imanol Berriatua, Jon Kepa Guarrotxena, Anton Borja, Angel Zelaieta edo eta Jose Luis Bengoa Zubizarretak heldu zioten zinemaren gaiari, besteak beste. Ikuspuntu ezberdinetatik: ikusle-kopuruei erreparatuz, neorrealismoa bezalako mugimenduak aztertuz, zinema-munduko pertsonaia famatuen berriak emanez. 1970etik aurrera, berriz, Benito Ansola Lekeitioko apaizak sinatutako zinema kritika xaloak ere agertzen hasi ziren, baita *Jakin* taldeko kideen artikulu sakonak ere, ordura arte pentsaezinak ziren gai zinematografikoak aztertuz euskaraz. Joxe Azurmendik (1974, 16. or.), esaterako, Claude Faraldo-ren eta Jean Eustache-ren *Themroc* eta *La maman et la putain* filmetako protagonistak psikologikoki aztertu zituen, «Faraldo eta Eustache-ren filmeetako iraultzagileak ere seksualki nahastuak dira», gizarte-arazo garaikideekin erlazionatuz: «Aho biko ezpata: Iraultzazaleek, irauli beharrezko mundu gaizto honetako errepresio seksualak aipatzen dituzte. Eta mundu honek, iraultzazaleen beren frustrazio eta konplexu seksualak aipatuz erantzuten du. Eta batek jakin nork duen arrazoi gehiago» (Azurmendi, 1974, 16. or.). Joan Mari Torreldaik, bestalde, adierazpen-askatasunaren eta zentsuraren mugak gogoetagai zituen, zinemari begira: «Nazismoa eta honen politikabidea defendatzen duen filme bat, zer da: politika ala oinharrizko eskubideen kontrakoa? Galde soil bat da» (1975, 13. or.).

1973tik aurrera, Inaki Azkune, Xabier Portu eta batez ere Jexux Mari Zalakainen sinadurak gehitu ziren *Anaitasunaren* zinemari buruzko orrialdeetara. Bartzelonan bizi zen Zalakainek mintzagai zituen, bereziki, Quebecoko zinemagileak, Sergei Obrastsov errusiarra, Ken Loach eta orduko zinemagintzako beste izen esanguratsuak. Iduri zuen, nonbait, zinemari buruz idaztea moda bilakatzen ari zela euskal idazleen artean. Bakoitzak bere hegitik begiratzen zion: *Zeruko Argian*, Txillardegik «Erotismo eta estetika» izeneko testu luze batean, zinema erotikoari kritika egingo zion: «Zinema pornoa, gizonaren sakontasunaren uko zabarra eta zozoa den aldetik, gaurko gizartearen txirogarri nabarmen iruditzen zait. Eta gizasemearen, emakumearen eta maitasunaren

beraren txirogarri den aldetik nahi nuke berriro ere eta osoki lerro hauen bitartez gaitzetsi?» (1974, 3. or.). Xabier Letek ere ildo beretik joko zuen, Espainian «destapearen zinema» deitu zen joeraren kontra:

Alfredo Landa jaunak hemendik aurrera ez dizkigu bere kaltzontzilluak bakarrik erakutsiko, ipurdia ere bai agian. Berdin, Ana Belen eta Amparo Muñozek bularrak baiño gehixeago erakustea beta izanen dute. Ederki. Hori liberaltasuna ez dela diot, hobe luke bere burua putzura bota. Ez baita hortik aurrerako irekitasunik itxoin behar (Lete, 1975, 7. or.).

Letek usu idatzi zuen zinemaz garai hartako *Zeruko Argian*. Bere estilo pertsonaletik filmak eta egileak aztertu zituen, Victorio Di Sicaren heriotza kari publikatu zuen testuan ageri den bezala: «Poesia eta gizatasuna behartu eta behe mailako jendeen alde erabili zituen poeta izan zen» (1974, 7. or.). Zinemagile neorrealistaren bidetik sortutako zinema herrikoia aldarrikatzen zuen Letek, beharbada, euskal kulturarendako iturri bat ikusiz Di Sicaren begiradan:

De Sicaren pelikuletan, bereziki errealitatearen garraztasuna ahal zen neurrian umorez ematen zen, umore poetiko haren ikuituz errealitate zail eta negargarri hura itxaropen-bide bilaka eraziz. [...] Hil da De Sica, baina bere filma hobereenak ez dira sekula hilko. Orain urte batzutako zine-klub haietako batean *Miracolo a Milano* ikusiz ikasi nuen bezala, zine ona ez burura bakarrik baizik bihotzera ere zuzenean sartzen den hura baita. Gaurko zenbait pendantek edo frustratuk hori ahazturik badu ere, benetako zine herrikoia egin nahi duenak berriro ikasi egin beharko du. Errealitate perzeptiboa, neorrealistek ongi zekiten bezala, adimen eta sentimenduz osatzen baita (Lete, 1974, 7. or.).

1975etik goiti, euskal zinema eraiki beharrari buruzko eztabaidak sortzen hasi ziren gizaratean, bai giro euskaldunetan, bai erdaldunetan. Zestoako Zine Klubean, Udako Euskal Unibertsitatean edo Bilboko Cine Club Universitario delakoan jardunaldiak antolatu ziren balizko euskal zinemagintzak beharko lituzkeen ezaugarriez eztabaidatzeko. Zunzuneguien arabera, preseski, 1980ko hamarkadan «cine vasco» gisa ezagutuko zen fenomenoaren hastapena 1976an Bilbon antolatu ziren «Primeras jornadas de cine vasco» jardunaldietan ernaldu zen (Zunzunegui, 2014, 28. or.). Aitzitik, euskal prentsan hainbat urte lehenagotik ageri ziren euskarazko zinema egiteko premiaren gaineko gogoetak. 1972an, 19 urteko Koldo Izagirre idazleak «Pasaiaiko zenbait gazteren asmoaren inguruan» izeneko artikulua sinatu zuen *Zeruko Argian* Xabier Portugalekin batera:

Gaur egun ez dago euskal zinemarik –baten batek esanen luke badagoela zinema euskaldunik (ezen ez euskal zinemarik), hots, euskaldunek (¿!) eginiko zinema... erdalduna!–. Baina zinema hori ez dago gure arazoetaz arduratua, eta guk leporaino zikindutako filmak behar-nahi ditugu. Zain egon gara luzaz. Geurea izanen dena geurok lortu behar dugu. Eta garaia da! (Izagirre & Portugal, 1972, 7. or.).

Ondoko urteetan, Koldo Izagirrek harreman estua izan zuen zinemarekin, bai gidoigile, bai zuzendari, bai ekoizle, euskarazko film andana batean parte hartuz,

eta, ikerketa honen denbora lerrotik kanpo gelditzen bada ere, 1996an *Gure zinemaren historia petrala* saiakera publikatu zuen, euskaldunen eta zinemaren arteko harremanen gaineko kronika pertsonal iradokitzailea. Baina, 1970eko hamarkadaren bigarren zatian, zinemaz idazteagatik gehien nabarmendu zena, dudarik gabe, Joseba Sarrionandia izan zen. 1977tik 1980ra, nagusiki *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkarietan, kasik astero zinema kritika edo iruzkin bat publikatu zuen, euskarazko zinema kritika eta kultura zinematografikoa bera beste maila batean ezarriz, bai kualitatiboki, bai kuantitatiboki. 120 testutik gora publikatu zituen guztira, eta ordura arte jorratu gabeko angeluetatik egin ziren so filmei, bestelako irakurketak proposatuz, testuinguru historikoetan kokatuz eta kritikotasun ezker-tiarra garatuz.

Bestalde, garaiko kronika bezala ere, Sarrionandiaren testuak iturri interesgarria dira. 1977 eta 1980 arteko sasoi berezia izan baitzen arlo guztietan, orduko giroari erabat loturik daude, lekukotza historikoa balio gisa agertuz. Zinemaren alorrean, film politiko eta erotikoen bolada izateaz gain, orduan ezagutu ziren Hego Euskal Herrian urtetan zentsurak debekatuta egondako hainbat film, eta Sarrionandiak eztanda haren notario lanak egin zituen, astez aste. Hala zioen berak:

Aspaldian, aintzina eginiko pelikulak komentatzen ari gara. Frankismoan zehar debekaturik eta zentsuraren almenetan pilaturik egoniko filmeak, orain, askatasun formal berriak direla medio, bat batean agertzen zaizkigu karteleretan. Honek nolabaiteko inflakzio zinematografiko bat sortu du. Baina zorionezko inflakzio guztiak bezala laster baretuko dela dirudi. Bitartean, bere garaian ikusi eta komentatu ezin izan dena orain aztertzeke aukera dugu, denbora iraganaren kalte eta abantailekin. Husten ari diren zentsuraren ganbarek *Viridiana* bomitatu dute aurten, 16 urte bahitua mantentzen ondoren (Sarrionandia, 1978, 37.-38. or.).

Buñuel, Kubrick, Chaplin, Bertolucci, Eisenstein, Pasolini, Bergman, Fassbinder, Allen... zinemaren historiako film eta autore gako asko ageri dira Sarrionandiak hogeitau urte inguru zituela idatzi zituen testuetan eta, horrekin batera, gero bihurtuko zen idazlearen ezaugarri nagusiak ageri zaizkigu bere testuetan: erudizioa, umorea, kritikotasuna, eta poesia eta filosofiarako joera. Gehienak, idazleak garai hartan ikusitako filmen kritikak dira (zinemetan ikusiak, Donostiako Zinemaldian ikusiak, mugimendu politikoren baten mitinean ikusiak...), baina badira autore baten filmografia osoari eskainitakoak ere eta, areago, hildako zinemagileei egindako gorazarreak. Horrekin batera, Sarrionandiak «Zinekologoaren bulegoa» izeneko sail zinematografiko umoristikoa idatzi zuen *Zeruko Argian*, 1979an. Bertan, lehiaketak, txistek eta itxuraz zinemari lotutako berri laburrak agertu zituen. Adibidez:

Xabier Gereño bilbotar nobelagileari enkargatu omen diote «Emanuelle 6» filmaren gidoia idaztea, eta lan horretarako esperientzia erotikoa biltzen ari delako ez zen, hain zuzen, Deustuako bilanziko poliziako lehiaketara presentatu. Erregutzen diogu Xabierri, bere gidoigintza ere garrantzitsua den arren, ez ditzala ahanzi bere obligazioak (Sarrionandia, 1979, 33. or.).

1980an preso sartu zutelarik eten zen Sarrionandiaren harremana zinemarekin, baina bere testuek bidea ireki zieten ondoko urteetan euskarazko zinema kritikari gisa espezializatuko ziren hainbat idazleri (Koldo San Julian, Xabier Portugal, Andres Gostin, Juan Jose Iribar...).

6. ONDORIOAK

Ikerketa honetan, ikuspuntu historikotik, XX. mende hastapenetik 1980ko hamarkadara arte euskal idazleek zinemari buruz idatzitako testuak aztertu ditugu deskriptiboki. Lehen mailako iturri dokumentalen ustiaketa sakona egin dugu horretarako, euskaraz publikatutako liburuen eta euskarazko agerkari nagusien azterketa xehea eginez.

Baieztaatu ahal izan dugun lehen ondorioa da uste zitekeena baino askoz ere gehiago eta anitzagoak direla euskaraz zinemari buruz idatzitako testuak. 1910eko hamarkadatik bertatik hasita, garaian garaiko euskal luma askok aipatu zuten zinema beren testuetan, hainbat ikuspegitatik. Hala, mende hastapenean ditugu Kirikiño, Batxi edo Jean Etxepare, geroago Larzabal, Zerbitzari, Luzear edo Aitzol; gerra ondotik Mitxelena, Ibinagabeitia, Lekuona, Lete, Azurmendi eta Txillardegi, eta, 1970-1980ko hamarkadetan, idazle gazteen tropel handi bat, Koldo Izagirre eta Joseba Sarrionandia biltzen dituen, besteak beste.

XX. mendeko euskal idazle esanguratsu askoren izena biltzen duen zerrenda horren luzeratik at, euskaraz zinemari buruz idatzitako testuetan ikuspuntuaren bilakaera ere antzeman daitekeela ikusi dugu. Mende hastapenean, zinema mutuaren garaian idatzitako testuetan, asmakizun berriarekiko mesfidantza eta gaitzespen tonua dira nagusi, filmak moralaren kontrakoak eta, are, euskararen beraren kaltegarri zirelakoan. Elizaren eragin ukaezinetik haratago doa joera anti-zinematografiko hori, elizgizonez eta intelektual katolikoez landa, Jean Etxepare mediku aldudarra bezalako figura laikoek ere beren gain hartzen baitzuten. Horrekin batera, mende hastapeneko zinemaren gaineko testu askok izenaren auziari heldu zioten. Alegia, zinema bera izendatzeko euskal izen jator bat asmatu beharri. Kirikiño eta haren inguruko idazle abertzale ugari horren gaineko eztabaidak izan zituzten *Euzkadi* egunkariko orrialdeetan, eta zinema izendatzeko euskal neologismoak 1950eko hamarkadara arte normaltasunez erabili zituzten hainbat idazlek.

Zinema soinudunaren orokortzearekin batera, filmen hizkuntza kezka iturri izatera pasa zen mundu osoko herrialdeetan, Estatu Batuetako zinemaren hegemonia finkatzen zen ber. Testuinguru hartan, euskararen zokoratzea azkartuko zuen arrangura hazi baino ez zen egin: espainola lanjerrean sentitzen bazen zinema amerikarraren aitzinean, hizkuntza gutxituen egoera are larriagotuko zuelako. Alta, Hego Euskal Herrian Pizkundearen mugimendua puri-purian zegoen sasoi hartan, eta ordukoak dira zinema ere euskararentzako irabazi beharra aldarrikatzen duten lehen testuak: Ander Arzelus Luzearrek, esaterako, euskarazko filmak ekoiztera deitu zuen hainbat aldiz euskal prentsaren orrialdeetatik. Haatik, Pizkundeko izen esanguratsuenetako

batzuen artean (Hernandorena, Aitzol, Lauaxeta...) osatutako *Euzkadi* dokumentala egin zelarik, espainola hautatu zuten hizkuntza nagusi. Beharbada, ahalik eta zabalpen handiena izatea helburu zuen propaganda film bat euskaraz egitea «irudipen zoro» bat iduritu zitzaien, Luzearren hitzak erabiltzearen. Iparraldean, berriz, garai hartan, zinemarekiko beste kritika mota bat agertzen hasi zen: kanpoko (oro har, paristar) produkzioek euskaldunetz emandako irudien kontrakoa. Gero eta ugariago ziren euskaldunak «museo etnografiko bizidun» gisa (Zulaika, 1996) errepresentatzen zituzten filmak, eta Larzabalek eta Zerbitzarik, besteak beste, haien kontrako idatziak publikatu zituzten, kanpo begiradaz kanpotarrentzat egindako filmak zirela salatuz.

Gerra ondoko urte ilunetan, denetan bezala, urritu egin ziren zinemari buruzko euskal testuak, baina 1950eko hamarkada hastapenetik berriz ere hasi ziren agertzen, *Euzko Gogoia* eta *Egan* aldizkarietan. Garai hartakoak dira lehen euskal kritika zinematografikoak, eta horien artean bereziki dira aipagarri Koldo Mitxelena *Eganen* publikatu zituenak. Mitxelena finkatu zuen zinemari buruz aritzeko euskarazko lexikoa, gerotik gelditu zaiguna; eta zinemari buruz mintzatzeko beste modu bat ere aurreikusi zuen, ondoko urteetan nagusitu zena.

Izan ere, 1960ko hamarkadatik aitzina, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkariaren hazkundearen eskutik, izugarri zabaldu zen zinemari buruzko euskal lanen kopurua. Kasik modako gai bihurtzeraino, garai hartako idazle belaunaldi berriak (Lete, Torrealde, Azurmendi) ordura arte pentsaezin ziren testuak idatzi zituen zinemaren gainean. Literatur lanetan ere, azkenean, naturaltasunez hasi ziren integratzen zinemarekin lotutako gaiak, hala nola, Txillardegia edo Juan Mari Lekuonarenetan. Baina, 1970eko hamarkadan ukan zuen joera honek bere memento gorena. Hegoaldean gertatu zen erregimen aldaketaren testuinguruan, zinemagintzak berak ere nolabaiteko askatzea bizi izan baitzuen (ordura arte zentsuratutako film anitz ikusgai izan ziren, euskal zinema nazional bat sortzeko debateak sortu ziren...). Horren hondar buruko frogara, Joseba Sarrionandiak 1977tik 1980ra idatzi zituen 120 zinema kritikak ditugu. Azkenean, euskaraz zinemari buruz idazten ari zen jendea, beste zeinahi hizkuntzatan egiten zenaren antzera.

Finean, esan liteke mende hastapeneko gaitzespen eta mesfidantzetatik 1980ra arte kultura zinematografiko bat sortzeko urrats herrenak emanez joan zirela euskal idazleak hamarkadaz hamarkada. Hala, azkenean, 1970eko hamarkadan kultura zinematografiko baten oinarriak finkatu zituzten zinemari buruzko testuen ugartzeak, haien aniztasunak eta kalitateak, Zestoako eta Lekeitioko euskarazko zinema jaialdien sorrerak, zine forumek, «euskal zinemak» izan beharko lukeenari buruzko eztabaidek, eta molde amateur zein profesionalean egindako zenbait euskal filmek (20 dokumentalez osatutako *Ikuska* saila, *Fernando Amezketarra* lehen marrazki biziduna, *Balantzatxoa* haurrendako film luzea...). Ondoko hamarkadetan, dezepzio, hutsegite, eta bide oker zenbaitek espero zitekeena baino mantsuagoa egiten zuten haren hazkundera, baina 2005ean *Aupa Etxebeste* estreinatzearekin batera bidea hasi zuen euskal zinemagintza berriak, nolani, ordura arte egindakoan ditu sustraiak.

7. ERREFERENTZIAK

- Abalegi, P. (1956, azila-gabonila). Yolasak benaz. *Euzko Gogo*, 94-101.
- Aire, F. «Xalbador». (1969). *Ezin bertzean*. Auspoa.
- Alvarez, J. L. «Txillardegia». (1957). *Leturiaren egunkari ezkutua*. Euskal Idazlanak.
- Alvarez, J. L. «Txillardegia». (1974, irailaren 8a). Zinemaren joera. Erotismo eta estetikak. *Zeruko Argia*, 601, 3.
- Ariztimuño, J. «Aitzol». (1933, abenduaren 29a). Nuevos rumbos proselitistas, la película Euzkadi. *Euzkadi*, 6571, 1.
- Arriandaga, M. «Mibisus». (1914, irailaren 30a). Egunekua. *Euzkadi*, 604, 1.
- Arzelus, A. «Luzear». (1931, irailaren 8a). Irudipen zoroak. *El Pueblo Vasco*, 9659, 6.
- Azpillaga, P. (2015). Euskal zinema, industria gisa. In J. Fernandez (arg.), *Euskal zinema: zinemagileen hiru belaunaldi* (252.-270. or.). Euskadiko Filmategia.
- Azurmendi, J. (1974, apirilaren 15a). Frantziako filmegile berriak. *Anaitasuna*, 273, 16.
- Barambones, J. (2011). Una mirada telescópica al cine en euskera: versiones originales, dobladas y subtituladas. *Hermeneus*, 13(1), 25-59.
- Basterretxea, A. (2000). *Ene Ondarru*. Auspoa.
- Bilbao, J. B. «Batxi». (1997). *Hau mundu arrano hau*. Susa.
- Bustinsa, E. «Kirikiño». (1914, apirilaren 5a). Egunekua. *Euzkadi*, 426, 1.
- de Pablo, S. (2012). *The Basque nation on-screen. Cinema, nationalism, and political violence*. Center for Basque Studies.
- Doxandabaratz Otaegi, B. (2020). *Landa eta hiri identitateak talkan euskal zinema berrian* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/49613>
- Elizalde, J. «Zerbitzari». (1930, abenduaren 19a). Haur prodigoa, Laburditik. *Euzkadi*.
- Etxaburu, J. M. (1995). *Ondarru'ko kontuak*. Auspoa.
- Etxeberria, F. P. «Abalegi». (1956, gabonilla). Yolas benaz. *Euzko Gogo*.
- Etxepare, J. (1984). *Jean Etchepare Mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I. Euskal gaiak*. Elkar.
- Eusko Ikaskuntzaren deia. (1954, orrilla-dagonilla). *Euzko Gogo*, 98.
- Exotismo y esperanzas de liberación. (1923, uztailearen 20a). *Aberri*, 127, 1.
- Fernandez, J. (2015). *Euskal zinema*. Etxepare Euskal Institutua.
- García Carrión, M. (2013). *Por un cine patrio: cultura cinematográfica y nacionalismo español*. Universitat de Valencia.
- Gesalaga, J. B. (1967). *Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria*. Auspoa.
- Gubern, R. (1977). *El cine sonoro en la II República 1929-1936*. Lumen.
- Haur prodigoa. (1930, abenduaren 19a). *Euzkadi*, 5624, 5.
- Ibinagabeitia, A. (1952, iraila). Izeko aberatsa-Irulearen negarra, Nemesio Etxanizen antzerkiaren kritika. *Euzko Gogo*, 21-30.
- Izagirre, K. & Portugal, X. (1972, urriaren 29a). Pasaiako zenbait gazteren asmoaren inguruan. *Zeruko Argia*, 504, 7.
- Izagirre, K. (1996). *Gure zinemaren historia petrala*. Susa.
- Lahina, E. (1956, iraila). Sor Lekua. *Gure Herria*, 247-252.
- Larzabal, P. (1960, urria). Pierre Loti eta gu. *Gure Herria*, 225-241.
- Larzabal, P. (1996). *Piarres Larzabalen idazlanak*. Elkar.
- Lekuona, J. M. (1973). *Muga beroak*. Gero.

- Lete, X. (1974, abenduaren 8a). Victorio di Sicaren heriotzean. *Zeruko Argia*, 614, 7.
- Lete, X. (1975, martxoaren 23a). Orson Welles: question mark fake. *Zeruko Argia*, 629, 7.
- Manias-Muñoz, M. (2015). *Euskarazko zinemaren produkzioa eta finantziakzioa (2005-2012)* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/18536>
- Manterola Agirrezabalaga, E. (2019). Evolución del cine en euskera y su traducción. *MonTI. Monografías De Traducción E Interpretación*, 4. zenbaki berezia, 113-144. <https://doi.org/10.6035/MonTI.2019.ne4.4>
- Martinez, J. (2022). *Irudiz eta euskaraz. Gure hizkuntzaren zinema. Gure zinemaren hizkuntza*. UEU.
- Metz, C. (2001). *El significante imaginario. Psicoanálisis y cine*. Paidós.
- Mitxelena, K. (2006). *Denbora bateko zinema paperak, 1954-1961*. Alberdania.
- Mokoroa, J. Ibar. (1936). *Genio y lengua*. Librería de Moco-roa Hermanos.
- Odieta. (1927, martxoaren 20a). *Zinea. Argia*, 309, 1.
- Oilangorri. (1914, urriaren 6a). Euzko Abendearen elez. *Euzkadi*, 610, 3.
- Orizti. (1914, urriaren 6a). Euzko Abendearen elez. *Euzkadi*, 610, 1.
- Perez Gaztelu, E. & Telletxea, M. (1994). Koldo Mitxelenaren zinema-kritiketako hitz eratorriak. *Euskera*, 39(3), 1129-1157.
- Roldan Larreta, C. (1999). *El cine del País Vasco*. Eusko Ikaskuntza.
- Sarrionandia, J. (1978, ekainaren 18a). Viridiana. *Zeruko Argia*, 789, 37-38.
- Sarrionandia, J. (1979, urtarrilaren 4a). Zinekologoaren bulegoa. *Zeruko Argia*, 817, 33.
- Sojo Gil, K. (2019). The evolution of euskera in Basque Cinema. *LME, Linguistic Minorities in Europe. Online*. De Gruyter-Mouton. <https://doi.org/10.1515/lme.9600996>
- Torrealdai, J. M. (1975, martxoa). Zinema, zentsura eta dirua. *Anaitasuna*, 294, 13.
- Unanue, X. (1972, urtarrilaren 16a). Zinea dela eta. *Zeruko Argia*, 463, 7.
- Unsain, J. M. (1985). *El cine y los vascos*. Eusko Ikaskuntza.
- Uriolabeitia, A. (1914, urriaren 6a). Egunekua. *Euzkadi*, 610, 1.
- Zulaika, J. (1996). *Del cromagnon al carnaval*. Erein.
- Zunzunegui, S. (1985). *El cine en el País Vasco*. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Zunzunegui, S. (2014). Treinta años no es nada. In J. Fernandez (arg.). *Euskal zinema: hiru zinemagile belaunaldi*. Euskadiko Filmategia, 21-32.
- ZZ. AA. (1932). *Congreso Hispanoamericano de Cinematografía*. Hijos de M. G. Hernández.

